

BERTSOLATA

Bertsolari txapelketako sei finalista Hernanin, kiroldegian

■ Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Sustrai Colina, Unai Iturriaga eta Igor Elorza arituko dira kantuan ■ Bihar, larunbata, arratsaldeko 18:30etan, kiroldegiko frontoian ■ Gaur 'kaleko trama', 19:00etan.



Andoni Egaña txapela jantzita agurra kantari eta atzekoak txaloka.

BERTSOLATA aurrera dioa eta larunbat arratsaldean izango da saio garrantzitsuenetako bat: finalisten jaialdia. Txapela oso gutxiatik ez zen etorri Hernanira; baina, txapelduna, txapeldunordea eta beste 4 bertsolari kiroldegian arituko dira kantari.

NOBEDADEA AURTEN
Iraulio Panttalone taldeak Kronikari jakinarazi dionez, aurtengoa nobedadea izan da. Orain artean, bertso jaialdira-ko bertsolariak aukeratzera-ko

erabili duen kriterioa izan da oreka mantentzea: eliteko bertsolariak, gutxiago dabilzan bat edo beste, eta herriko bi.

Aurten, ordea, Txapelketa Nagusia jokatu da eta Iraulio Belodromoko finalean kantatu zuten bertsolariak ekarri ditu Hernanira; lau urtez behingo aukera baita. Txapelketa guztietan izaten dira finalisten saioak eta oraingoan ere bai. Hernanikoa aurrengoan izango da.

Karteletan Sandiusterrin dela jarriatik, kiroldegian da.

ELORZA, MAIA ETA COLINA BERRIAK

Larunbatean kiroldegian izango diren sei bertsolarietatik hiruk ez dute oraindik Hernaniko jaialdian kantatu. Maia eta Elorzak Bertsolatako beste saioetan bai, kantatu izan dute. Sustrai Colina Urruñako errebelazioa da oraindik Hernanin kantatu gabea. Bertsolariak esana da Hernanin kantatzeak errespeto handia sartzen duela eta larunbatean ere sekulako saiorik onena egin nahiko dute. Sarrera 500 pta da eta taki-

lan bertan izango dira saioa hasi baino ordu bete lehenago.

Bestalde gaur *kaleko trama* izango da *Bertsolatako* ekitaldia. Istorio berezi bat bertsotan kontatua. 19:00etan aterako da Karkabatik. Euririk ari badu suspenditu egingo da. □



ADARRA

ETXE TRESNAK S.A.

Txirrita 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)



DELICATESSEN
since 1983

Produktu Bereziak

Nagusia 17 • 20120 HERNANI
© 943 55 21 27
POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net

DENDA
ARKA


**Eurorako presta zaitez,
egin oparia zure buruari!**

Jantzi zure ordenagailua mahai praktikoa eta eserleku komodo batekin.

Preziorik onenak **Arkan**.

Ezagutu **Uztari** estanteria; merkatuan bakarra da.

ARKA DENDA -KARDABERAZ KALEA 41 ☎ 943 33 34 87-



Zorionak eta
ondo izan jai
egun hauetan.

OKINDEGIA
ANTZIOLA

Eguneroko ogirik onena!

ANTZIOLA AUZOA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI



Skoda Fabia CombiDatorren jendearentzat espazio berria.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943 40 42 43

Urte Zahar gauean tabernak itxita

■ Banku Zentralaren gomendioen kontra, konsumizioa pezetatan bakarrik ordaintzea eskatzen da ■ “Ez dugu faltsifikatzaileen paradisoa izan nahi”.



Euroak uste baino hasiera txarragoa izan lezake.

EUROA ofizialki ez da oraindik sartu, baina, hasi da buru hausteak ekartzen. Urtarrilaren 1a da ofiziala egiteko eguna, eta ez da egunik erosoena, batez ere tabernariarentzat. Gauzak horrela, eta kontua

asko aldatzen ez bada, Urte Zahar gauean Hernaniko tabernak itxita egon litezke, eta beste herrietan ere antzeko mobilizazioak planteatzen ari dira, Kronikak jasotako prentsa oharrek dioenez.

PEZETATAN BAKARRIK

Espainiako Banku Zentralak gomendatu du lehenbailehen euroak erabiltzen hasteko. Gipuzkoako Tabernari elkarte bat dator idea horrekin. Arzoa da, ordea, Euroa sartzeak “serbizioa blokeatu lezakeela” eta “tabernak direla bilete faltsifikatzaileen paradisoa”.

Tabernari elkarteak bi eskari egin ditu: Urte zahar gauean behintzat pezetatan bakarrik ordaintzea eta kaje-roetan ere pezetak egotea, “funtzionamendu normala errazteko” tabernari elkartearen esanetan.

Tabernari elkarteak tabernak ez irikitzeke amenazua eginagatik “autoritate monetarioen erantzunaren zain” daudela dio gau horretan zer egin erabakitzeke. □

‘ETXERAT’ ELKARTEA

Presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuko dute gaur Gudariaren plazan

■ ‘Guztion artean Euskal Presoak Euskal Herrira’ da lema ■ Arratsaldeko 20:00etan.

ETXERAT elkarteak Presoak Euskal Herrira Ekartzeko, eskatzen du hileroko kontzentrazioan. Kronikari azpimarratu diote “egun hauetan hutsunea gehiago nabarmentzen” dela etxeetan, eta jendea “konpromezu txiki bat” hartu eta kontzentrazioa joateko eskatu diote.



Presoen senideak kartel atzean eta jendea bueltan, kontzentrazioan.

URTE BERRI EGUNEAN MENDI IRTEERA

Ohitura da urteko lehen egunean Adarrara joatea. *Etixerat* elkarteak Presoak Euskal Herrira ekartzeko aldarrikapena


eraman nahi du menditontorrean urte berriarekin. Zita Besabin

egingo dute, goizeko 09:00etan, edo tontorrean 11:00etan. □

ERREMONTTE-TXAPELKETA (BINAKA)

Zeberio II-Iriartek erraz irabazi zuten

■ Ezkurrak eta batez ere Urkok ez zuten partidu ona jokatu, eta faboritoek galdu egin dute lehen partidua.



Iriarte sakatzen Urko begira duela.

MAHAI TENISA

Gasteizen jokatu du gaur Easo-Hernanik

■ ATZERATUKO partidua jokatu dute gaur Easo-Hernanik eta Gasteizek, autonomika mailan. Txema Armentia, Erik Diez eta Iker Martinezek jokatu dute Hernaniren izenean, lehen bueltako azken partidua.

Bihar eta etzi gazteenen txanda izango da. Alebin, infantil eta jubenil mailako hernaniarrek Euskadiko txapelketak jokatu dituzte, Aieten. Ohorezko mailetan jokatu duten hernaniarrek Gipuzkoako taldeetako jokalariek izango dituzte kontrario gogorrenak, Euskadiko txapelketa hauetan. □

Karobi elkarteak

urteurreneko afaria du gaur

■ KAROBI Elkarteak urteurreneko afaria du gaur, gaueko 21:00etan. Karobik zenbait ekitaldi antolatu ditu aste honetan, ireki zela urtebete dela ospatzeko: karobie buruzko hitzaldia, ipuin kontaketa, txokolatada; eta, gaur, afaria. Menua: entremesak, bakailoa saltsan, entrekota plantxan, postreak, kafea, kopa eta purua. Bestalde, Tute Txapelketako sariak ere gaur banatuko dira. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Gomez Nagusia 15 ☎ 943 554892
- ▶ Gaez: De Miguel Lasarte. Nagusia 32 ☎ 943 361556

KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK Oso Realzaleentzat bakarrik



Zu bezalako pertsonentzat, Reala oso modu berezian sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude **Kutxa-Real Sociedad Maestro eta MasterCard** txartel berriak. Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez gainera, **opariak ere lortu** ahal izango dituzu. Anoetako partiduetarako **sarreraren zozketan** parte hartu, eta **bi pertsonarentzako bidaia baten zozketan** ere bai,

gure taldea bere desplazamenduetako batean laguntzeko.

Gainera, **2002ko otsailaren 1a baino lehen** eskatu eta erabiltzen baduzu, **CD zoragarri bat, Txuri-Urdin abestiaren 5 bertzio berezi biltzen** dituen, eramango duzu opari.



Eskatu kutxaren bulegoetan edo www.kutxa.net helbidean.